EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO

Osoko Bilkura eta Batzordeen Atala
Sección de Plenos y Comisiones

N.º 111 zk.

2015eko otsailaren 12a
12 de febrero de 2015
09:30

# Eusko Legebiltzarraren Osoko Bilkura
# Sesión Plenaria del Parlamento Vasco

| AURKIBIDEA<br>2015eko otsailaren 12a | ÍNDICE<br>12 de febrero de 2015 | Orrialdea / página |
|---|---|---|
| 1. EH Bildu legebiltzar-taldeak egindako legez besteko proposamena, hidrokarburoak ustiatzeko haustura hidraulikoaren teknikak ingurumenean eta osasunean sortu ahal dituen eraginen inguruan informatzeari buruz. Eztabaida eta behin betiko ebazpena. [10\11\02\01\0683] ERRETIRATUA ................................................................................ | 1. Debate y resolución definitiva de la proposición no de ley formulada por el grupo parlamentario EH Bildu, sobre información acerca de las afecciones que puede producir en el medio ambiente y en la salud la técnica de fracturación hidráulica para la explotación de hidrocarburos. [10\11\02\01\0683]......... RETIRADO ................................................ | 3 |
| - Legez besteko proposamena ...................... | - Proposición no de ley ............................... | 5 |
| - Zuzenketak ............................................ | - Enmiendas ............................................ | 7 |
| 2. Euskal Sozialistak legebiltzar-taldeak egindako legez besteko proposamena, petrolioaren prezioen jaitsierak azkenean kontsumitzaileek ordaintzen duten gasolinen prezioan berehala eta proportzio berdintsuan eragin dezan neurriak hartzeari buruz. Eztabaida eta behin betiko ebazpena. [10\11\02\01\0642] .......... ................................................................ | 2. Debate y resolución definitiva de la proposición no de ley formulada por el grupo parlamentario Socialistas Vascos, en relación con la adopción de medidas para que la reducción de los precios del petróleo afecte, con la inmediatez y en proporción similar, al precio de las gasolinas que se paga finalmente por los consumidores. [10\11\02\01\0642]... | 9 |
| - Legez besteko proposamena ...................... | - Proposición no de ley ............................... | 11 |
| - Zuzenketa ............................................... | - Enmienda ............................................... | 13 |
| 3. Euskal Legebiltzar Talde Popularrak egindako legez besteko proposamena, diru-sarrerak bermatzeko errentaren bidez pentsioen osagarriak aldatzeari buruz. Eztabaida eta behin betiko ebazpena. [10\11\02\01\0667]. ................................................................ | 3. Debate y resolución definitiva de la proposición no de ley formulada por el grupo parlamentario Popular Vasco, para la modificación de los complementos de pensiones a través de la RGI. [10\11\02\01\0667].................................. | 15 |
| - Legez besteko proposamena ...................... | - Proposición no de ley ............................... | 17 |
| - Zuzenketak ............................................ | - Enmiendas ............................................ | 19 |
| 4. Mozioa, Gorka Maneiro Labayen Mistoa-UPyD taldeko legebiltzarkideak aurkeztua, espetxe-politikari buruzko Zuzen Bidean programaren gainean. Eztabaida eta behin betiko ebazpena. [10\11\03\00\0124] .......... BESTE BATERAKO UTZIA ............................. | 4. Debate y resolución definitiva de la moción presentada por D. Gorka Maneiro Labayen, parlamentario del grupo Mixto-UPyD, relativa al programa Zuzen Bidean sobre política penitenciaria. [10\11\03\00\0124] ............... POSPUESTO .............................................. | 21 |
| - Mozioa .................................................. | - Moción .................................................. | 23 |
| - Zuzenketak ............................................ | - Enmiendas ............................................ | 25 |

Becerro de Bengoa • 01005 Vitoria-Gasteiz
Tel.: 945 00 40 00 • Fax: 945 13 54 06 • www.legebiltzarra.eus

| | | |
|---|---|---|
| 5. EH Bildu legebiltzar-taldeak egindako legez besteko proposamena, Eliza Katolikoak inmatrikulaturiko ondasunei buruz. Eztabaida eta behin betiko ebazpena. [10\11\02\01\0677] *BESTE BATERAKO UTZIA* ........ | 5. Debate y resolución definitiva de la proposición no de ley formulada por el grupo parlamentario EH Bildu, sobre los bienes inmatriculados por la Iglesia Católica. [10\11\02\01\0677] *POSPUESTO*........ | 27 |
| - Legez besteko proposamena ........ | - Proposición no de ley ........ | 29 |
| - Zuzenketak ........ | - Enmiendas ........ | 31 |
| 6. Euskal Sozialistak legebiltzar-taldeak egindako legez besteko proposamena, Serantesko tunelari buruz. Eztabaida eta behin betiko ebazpena. [10\11\02\01\0650]........ | 6. Debate y resolución definitiva de la proposición no de ley formulada por el grupo parlamentario Socialistas Vascos, relativa al túnel del Serantes. [10\11\02\01\0650] ........ | 35 |
| - Legez besteko proposamena ........ | - Proposición no de ley ........ | 37 |
| - Zuzenketa ........ | - Enmienda ........ | 39 |
| 7. Euskal Legebiltzar Talde Popularrak egindako legez besteko proposamena, Euskadiko ardi-sektoreko neurriei eta dinamizazioari buruz. Eztabaida eta behin betiko ebazpena. [10\11\02\01\0611]........ | 7. Debate y resolución definitiva de la proposición no de ley formulada por el grupo parlamentario Popular Vasco, referente a medidas y dinamización del sector ovino en la Comunidad Autónoma vasca. [10\11\02\01\0611] ........ | 41 |
| - Legez besteko proposamena ........ | - Proposición no de ley ........ | 43 |
| - Zuzenketak ........ | - Enmiendas ........ | 45 |

**1. gaia.** **EH Bildu legebiltzar-taldeak egindako legez besteko proposamena, hidrokarburoak ustiatzeko haustura hidraulikoaren teknikak ingurumenean eta osasunean sortu ahal dituen eraginen inguruan informatzeari buruz. Eztabaida eta behin betiko ebazpena. [10\11\02\01\0683]**

- - - - - -

. Legez besteko proposamena aurkeztea: 2015-01-07

. Aurkeztutako zuzenketak:

- PV-ETP (1 osokoa)
- SV-ES (1 osokoa)
- EA-NV (1 osokoa)

- - - - - -

<u>Osoko bilkurako tramitazioa (Erregelamenduko 175. artikulua):</u>

1. Talde proposatzailearen hitzaldia (15 minutu)
2. Zuzenketak egin dituzten taldeen txanda (10 minutu)
3. Zuzenketarik egin ez duten taldeen txanda (10 minutu)
4. Erantzuteko txanda (5 minutu)
5. Bozketa

**Asunto 1.** **Debate y resolución definitiva de la proposición no de ley formulada por el grupo parlamentario EH Bildu, sobre información acerca de las afecciones que puede producir en el medio ambiente y en la salud la técnica de fracturación hidráulica para la explotación de hidrocarburos. [10\11\02\01\0683]**

- - - - - -

. Presentación de la proposición no de ley: 07.01.2015

. Enmiendas presentadas:

- PV-ETP (1 totalidad)
- SV-ES (1 totalidad)
- EA-NV (1 totalidad)

- - - - - -

<u>Tramitación en el pleno (artículo 175 del Reglamento):</u>

1. Intervención del grupo proponente (15 minutos)
2. Turno de grupos enmendantes (10 minutos)
3. Turno de grupos no enmendantes (10 minutos)
4. Turno de réplica (5 minutos)
5. Votación

***Hidrokarburoak ustiatzeko haustura hidraulikoaren teknikak ingurumenean eta osasunean sortu ahal dituen eraginen inguruan informatzeari buruz*** (Tramitatzeko onartzea)
(10/11.02.01.0683)

Mahaiak, 2015eko urtarrilaren 13ko bileran, erabaki du tramitatzeko onartzea, osoko bilkuran eztabaidatzeko, EH Bildu legebiltzar-taldeak egindako LEGEZ BESTEKO PROPOSAMENA, eta agindu du Eusko Jaurlaritzari bidal dakiola eta Eusko Legebiltzarraren Aldizkari Ofizialean argitara dadila.

Legebiltzar-taldeek, Legebiltzarrean indarrean dagoen Erregelamenduko 174.3 artikuluan adierazitakoari jarraituz, zuzenketak aurkeztu ahal izango dituzte, argitalpen hau egin eta hurrengo zazpi egun baliodunen barruan, Mahaiari idazki arrazoitua bidaliz.

**Eusko Legebiltzarreko lehendakaria**
**Bakartxo Tejeria Otermin**

Eusko Legebiltzarreko Mahaiari

Dani Maeztu Perezek, EH Bildu taldeko legebiltzarkide eta bozeramaileordeak, hurrengo legez besteko proposamena aurkezten du, osoko bilkuran eztabaidatzeko, hidrokarburoak ustiatzeko haustura hidraulikoaren teknikak ingurumenean eta osasunean sortu ahal dituen eraginen inguruan informatzeari buruz. Horretarako indarrean den Erregelamenduaz baliatzen da.

Zioa

Jakin izan dugunez, Eusko Jaurlaritzak, Energiaren Euskal Erakundearen bitartez, komunikazio-enpresa bat kontratatu du, fracking edo haustura hidraulikoaren irudia hobetzeko asmoarekin.

Haustura hidraulikoa presio handiko fluido baten bidez harri-geruzak hausteko prozesua da. Oro har, petrolioa, gas naturala edo beste substantzia batzuk lurzorutik erauzteko sortutako prozesua da. Haustura-lan bakoitzean, putzu bat zulatzen da erreserbak dituzten harri-formazioetan. Presio handiko fluidoa injektatzeak zartadura berriak sortzen ditu harkaitzean, erregai fosilen erauzte-tasak handituz. Hausturen zabalera mantentzeko, habetzaile bat sartzen da fluidoan, hau da, hausturak ixtea galaraziko duen elementu bat: harea, zeramika-zatiak, edo beste zenbait partikula.

Haustura hidraulikoak kezka eragin du munduan, jardunbide horrek lurpeko eta lur gaineko urak kutsatu ahal dituenez ingurumenaren, osasunaren eta segurtasunaren gainean eragin potentzial handia duelako, eta zenbait herrialdetan bertan behera utzi da edo debekatu egin da. Azken adibide aipagarriena Amerikako Estatu Batuetatik datorkigu, hain zuzen ere New Yorkeko estatuak haustura hidraulikoa galaraziko du bere lurraldean. Hidrokarburoak erauzteko teknika

***Sobre información acerca de las afecciones que puede producir en el medio ambiente y en la salud la técnica de fracturación hidráulica para la explotación de hidrocarburos*** (Admisión a trámite)
(10/11.02.01.0683)

La Mesa, en su reunión del día 13 de enero de 2015, acuerda admitir a trámite para su debate en pleno la PROPOSICIÓN NO DE LEY formulada por el grupo parlamentario EH Bildu, y ordena su remisión al Gobierno Vasco y su publicación en el Boletín Oficial del Parlamento Vasco.

Los grupos parlamentarios, conforme a lo dispuesto en el artículo 174.3 del vigente Reglamento de la Cámara, podrán presentar dentro de los siete días hábiles siguientes al de esta publicación las enmiendas que consideren pertinentes, mediante escrito motivado y dirigido a la Mesa.

**La presidenta del Parlamento Vasco**
**Bakartxo Tejeria Otermin**

A la Mesa del Parlamento Vasco

Dani Maeztu Perez, parlamentario y portavoz suplente del grupo EH Bildu, al amparo del Reglamento vigente presenta la siguiente proposición no de ley, para su debate en pleno, sobre información acerca de las afecciones que puede generar en el medio ambiente y en la salud la técnica de la fracturación hidráulica para la explotación de hidrocarburos.

Justificación

Según hemos sabido, el Gobierno Vasco ha contratado a través del Ente Vasco de la Energía a una empresa de comunicación para mejorar la imagen del fracking o fracturación hidráulica.

La fracturación hidráulica es un proceso de rotura de formaciones rocosas mediante un fluido de alta presión. En general, es un proceso creado para extraer petróleo, gas natural y otras sustancias del subsuelo. En cada operación de rotura, se perfora un pozo en las formaciones rocosas que contienen reservas. La inyección de un fluido de alta presión produce nuevas fisuras en la roca, incrementando las tasas de extracción de combustibles fósiles. Para mantener la anchura de las fisuras, se inyecta un componente de sujeción en el fluido, es decir, un elemento que impida el cierre de las fisuras (arena, trozos de cerámica o algunas otras partículas).

La fracturación hidráulica ha suscitado preocupación en el mundo, porque tiene una gran afección potencial en el medio ambiente, en la salud y en la seguridad debido a la contaminación que puede producir dicho procedimiento en las aguas subterráneas y superficiales, y en algunas países ha sido abandonado o prohibido. El último ejemplo más destacable nos viene de Estados Unidos, donde el estado de Nueva York va a prohibir la fracturación hidráulica en su

hori osasunerako arriskutsua izan daitekeela dioen txosten batean oinarrituta hartu dute erabakia estatuko agintariek.

territorio. Las autoridades de dicho estado han tomado dicha decisión sobre la base de un informe que establece que esa técnica de extracción de hidrocarburos puede ser peligrosa para la salud.

Araba, Gipuzkoan eta Bizkaian, argi geratu da jendarteak, orobat, haustura hidraulikoa gaitzesten duela, eta horren ondorioz, frackingaren kontrako plataformek EAEko lurralde osoan haustura hidraulikoaren teknika debekatuko duen lege-proposamen bat ekarri zuten Gasteizko Legebiltzarrera, eztabaidatua izan dadin, 103.589 herritarren sinaduraren babesarekin.

En Álava, Gipuzkoa y Bizkaia ha quedado claro que la sociedad rechaza también la fracturación hidráulica, y como consecuencia de ello las plataformas contrarias al fracking trajeron al Parlamento de Vitoria, con el apoyo de 103.589 firmas de ciudadanas y ciudadanos, una proposición de ley para la prohibición de la técnica de fracturación hidráulica en todo el territorio de la CAV, para que fuera debatida.

Horren aurrean, Jaurlaritzak, herritarren nahia ase beharrean, aldatu egin nahi du. Horretarako diru publikoa erabiliz. Hau da, herritarren dirua erabiltzen du, herritarrei haustura hidraulikoaren inguruan informazio manipulatua saltzeko asmoarekin. Orain arte Jaurlaritzak, teknika honen inguruan informazio guztia gizarteratu beharrean eta, diru publikoa gastatu baino lehen, eztabaida sustatu beharrean, hain zuzen ere propaganda instituzionala erabili izan du eta diru publikoa gastatu haustura hidraulikoaren makinaria martxan jarri ahal izateko.

Ante ello, el Gobierno, en lugar de responder a la voluntad de la ciudadanía, quiere modificarla. Utilizando dinero público para ello. Es decir, usa el dinero de los ciudadanos para venderles información manipulada sobre la fracturación hidráulica. Hasta ahora, el Gobierno, en lugar de socializar toda la información sobre dicha técnica y, antes de gastar dinero público, promover el debate, ha utilizado la propaganda institucional y ha gastado dinero público para poder poner en marcha la maquinaria de la fracturación hidráulica.

Horregatik guztiagatik, hurrengo legez besteko proposamen hau aurkezten du.

Por todo ello, presenta la proposición no de ley siguiente.

LEGEZ BESTEKO PROPOSAMENA

Legebiltzarrak Jaurlaritzari eskatzen dio:

1. Bertan behera utz dezala haustura hidraulikoaren irudia hobetzeko egindako kontratua.
2. Martxan jar dezala adituz osatutako batzorde independente bat, haustura hidraulikoaren alde teknikoa, energetikoa, ekonomikoa eta ingurumenekoa aztertzeko asmoarekin. Batzorde horretako kideak Legebiltzarrak izendatuko ditu eta bere txostenaren ondorioak publikoak izango dira.
3. Bitartean, bertan behera utz ditzala SHESA enpresaren bitartez haustura hidraulikoaren teknikarekin hidrokarburoak ikertzeko, aztertzeko edo ustiatzeko eskatutako baimen guztiak.

Gasteizen, 2015eko urtarrilaren 5ean

**Daniel Maeztu Perez, EH Bildu taldeko legebiltzarkidea eta bozeramaileordea**

***

PROPOSICIÓN NO DE LEY

El Parlamento insta al Gobierno

1. A suspender el contrato formalizado para la mejora de la imagen de la fracturación hidráulica.
2. A poner en marcha una comisión independiente integrada por expertos, para analizar el aspecto técnico, energético, económico y ambiental de la fracturación hidráulica. Los miembros de la comisión serán designados por el Parlamento y las conclusiones de su informe serán públicas.
3. A suspender, mientras tanto, todas las autorizaciones solicitadas a través de la empresa SHESA para la investigación, exploración y explotación de hidrocarburos mediante la técnica de la fracturación hidráulica.

Vitoria, 5 de enero de 2015

**Daniel Maeztu Perez, parlamentario y portavoz suplente del grupo EH Bildu**

***

***Sobre información acerca de las afecciones que puede producir en el medio ambiente y en la salud la técnica de fracturación hidráulica para la explotación de hidrocarburos*** (Enmiendas)
(10/11.02.01.0683)

La Mesa, en su reunión del día 3 de febrero de 2015, acuerda admitir a trámite las siguientes enmiendas presentadas a la proposición no de ley formulada por el grupo parlamentario EH Bildu, y ordena su publicación en el Boletín Oficial del Parlamento Vasco.

**La presidenta del Parlamento Vasco**
**Bakartxo Tejeria Otermin**

**GRUPO PARLAMENTARIO POPULAR VASCO**

**ENMIENDA DE TOTALIDAD**

"El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a utilizar todos los medios y competencias que desde la posición como Comunidad Autónoma podemos aplicar, con el fin de incorporar un nivel más alto de protección del medio ambiente para las actividades de extracción de hidrocarburos no convencionales y la fractura hidráulica o fracking".

**GRUPO PARLAMENTARIO SOCIALISTAS VASCOS**

**ENMIENDA DE TOTALIDAD**

"El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a que, en cualquier caso, toda información que realice en relación con la técnica de 'fracking' ofrezca objetivamente la exposición de los muy diversos puntos de vista existentes sobre la misma.

El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a que en cualquier actuación pública referida a la extracción de hidrocarburos no convencionales y la fractura hidráulica o 'fracking' obre con la mayor cautela posible, teniendo en cuenta la toma en consideración por esta Cámara de la iniciativa legislativa popular de medidas adicionales de protección medioambiental para la extracción de hidrocarburos no convencionales y la fractura hidráulica o 'fracking'".

**GRUPO PARLAMENTARIO MIXTO-UPyD**

**ENMIENDA DE TOTALIDAD**

"El Parlamento Vasco considera imprescindible impulsar, tanto en Euskadi como en España, un debate serio, riguroso y científico, abierto a la ciudadanía, sobre la fracturación hidráulica o 'fracking', que permita conocer sus ventajas, inconvenientes y posibles alternativas y, con todo ello, poder tomar y explicar las decisiones oportunas en beneficio del conjunto de la ciudadanía.

El Parlamento Vasco insta al Gobierno de España a presentar un proyecto de ley para regular la exploración y explotación de hidrocarburos no convencionales con la técnica de fracturación hidráulica que

***Hidrokarburoak ustiatzeko haustura hidraulikoaren teknikak ingurumenean eta osasunean sortu ahal dituen eraginen inguruan informatzeari buruz*** (Zuzenketak)
(10/11.02.01.0683)

Mahaiak, 2015eko otsailaren 3ko bileran, erabaki du tramitatzeko onartzea EH Bildu legebiltzartaldearen legez besteko proposamenari aurkeztutako ondoko zuzenketak, eta agindu du Eusko Legebiltzarraren Aldizkari Ofizialean argitara daitezela.

**Eusko Legebiltzarreko lehendakaria**
**Bakartxo Tejeria Otermin**

**EUSKAL LEGEBILTZAR TALDE POPULARRA**

**OSOKO ZUZENKETA**

"Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio erabil ditzala Autonomia Erkidegoak balia ditzakeen bitarteko eta eskumen guztiak ingurumenaren babes maila areagotzeko hidrokarburo ez-konbentzionalen erauzketan eta apurketa hidrauliko edo 'fracking'an".

**EUSKAL SOZIALISTAK LEGEBILTZAR TALDEA**

**OSOKO ZUZENKETA**

"Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio 'fracking'aren teknikari buruz ematen duen edozein informaziok beti eskain dezala gaiari buruz dauden ikuspegi ezberdinen azalpen objektiboa.

Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio ahalik eta zorrotzen joka dezala hidrokarburo ez-konbentzionalen erauzketari edo haustura hidrauliko edo 'fracking'ari buruzko jarduera publikoetan, kontuan hartuz Ganbera honek aintzat hartu duela hidrokarburo ez-konbentzionalak erauzteko prozesuan eta haustura hidrauliko edo 'fracking'ean ingurumena babesteko neurri osagarriei buruzko herritarren legeekimena".

**MISTOA-UPyD LEGEBILTZAR TALDEA**

**OSOKO ZUZENKETA**

"Eusko Legebiltzarrak uste du ezinbestekoa dela eztabaida serio, zorrotz eta zientifiko bat, herritarrei irekia, bultzatzea, hala Euskadin nola Espainian, haustura hidrauliko edo 'fracking'arik buruz, zeinek bidea emango duen haren abantailak, arazoak eta alternatiba posibleak ezagutzeko eta, harekin guztiarekin batera, herritarren onerako erabakirik egokienak hartzeko eta azaltzeko.

Eusko Legebiltzarrak Espainiako Gobernuari eskatzen dio lege-proiektu bat aurkez dezala haustura hidraulikoaren teknikaren bidez hidrokarburo ez-konbentzionalen esplorazioa eta ustiatzea arautzeko,

defina de forma clara y precisa los estándares de referencia mínimos para autorizar las exploraciones y explotaciones con fracturación hidráulica y prevea la creación de un organismo supervisor público para la vigilancia y el control del desarrollo de dicha técnica".

zeinen bidez definituko baita argi eta zehatz zein diren gutxieneko estandarrak baimentzeko haustura hidraulikoaren bidezko esplorazioak eta ustiapenak, eta aurreikusiko baita erakunde ikuskatzaile publiko bat sortzea teknika horren garapena begiratzeko eta kontrolatzeko".

## EUZKO ABERTZALEAK LEGEBILTZAR TALDEA

## OSOKO ZUZENKETA

"1. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio jarrai dezala lanean, Euskadin lurpean dauden baliabide energetikoak ezagutzeko.

2. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio bermatu dezala lan horietan guztietan ingurugiroko eta osasun publikoko arauak betetzen direla, ingurugiro-ondasunen, lurpeko akuiferoen eta bere errekargen babeserako estandar zorrotzak betez.

3. Proposamen hau Ingurumenaren Batzordeari bidaltzea, hidrokarburo ez-konbentzionalak erauzteko prozesuan eta haustura hidrauliko edo 'fracking'ean ingurumena babesteko neurri osagarriei buruzko lege-proposamena aztertzen diharduen ponentziaren baitako lanei gehitzeko".

***

## GRUPO PARLAMENTARIO NACIONALISTAS VASCOS

## ENMIENDA DE TOTALIDAD

"1. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a seguir trabajando en el conocimiento de los recursos energéticos existentes en el subsuelo de Euskadi.

2. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a garantizar en todos estos trabajos el cumplimiento de la normativa medioambiental y de salud pública, respetando los rigurosos estándares de protección de los bienes ambientales, de los acuíferos subterráneos y sus áreas de recarga.

3. Remitir esta propuesta a la Comisión de Medio Ambiente para su incorporación a los trabajos de la ponencia que analiza la iniciativa legislativa popular relativa a la proposición de ley de medidas adicionales de protección medioambiental para la extracción de hidrocarburos no convencionales y la fractura hidráulica o 'fracking'".

***

2. gaia. **Euskal Sozialistak legebiltzar-taldeak egindako legez besteko proposamena, petrolioaren prezioen jaitsierak azkenean kontsumitzaileek ordaintzen duten gasolinen prezioan berehala eta proportzio berdintsuan eragin dezan neurriak hartzeari buruz. Eztabaida eta behin betiko ebazpena. [10\11\02\01\0642]**

\- - - - - -

. Legez besteko proposamena aurkeztea: 2014-10-23

. Aurkeztutako zuzenketa:

\- EA-NV (1 osokoa)

\- - - - - -

Osoko bilkurako tramitazioa (Erregelamenduko 175. artikulua):

1. Talde proposatzailearen hitzaldia (15 minutu)
2. Zuzenketak egin dituzten taldeen txanda (10 minutu)
3. Zuzenketarik egin ez duten taldeen txanda (10 minutu)
4. Erantzuteko txanda (5 minutu)
5. Bozketa

Asunto 2. **Debate y resolución definitiva de la proposición no de ley formulada por el grupo parlamentario Socialistas Vascos, en relación con la adopción de medidas para que la reducción de los precios del petróleo afecte, con la inmediatez y en proporción similar, al precio de las gasolinas que se paga finalmente por los consumidores. [10\11\02\01\0642]**

\- - - - - -

. Presentación de la proposición no de ley: 23.10.2014

. Enmienda presentada:

\- EA-NV (1 totalidad)

\- - - - - -

Tramitación en el pleno (artículo 175 del Reglamento):

1. Intervención del grupo proponente (15 minutos)
2. Turno de grupos enmendantes (10 minutos)
3. Turno de grupos no enmendantes (10 minutos)
4. Turno de réplica (5 minutos)
5. Votación

***En relación con la adopción de medidas para que la reducción de los precios del petróleo afecte, con la inmediatez y en proporción similar, al precio de las gasolinas que se paga finalmente por los consumidores*** (Admisión a trámite)
(10/11.02.01.0642)

La Mesa, en su reunión del día 28 de octubre de 2014, acuerda admitir a trámite para su debate en pleno la PROPOSICIÓN NO DE LEY formulada por el grupo parlamentario Socialistas Vascos, y ordena su remisión al Gobierno Vasco y su publicación en el Boletín Oficial del Parlamento Vasco.

Los grupos parlamentarios, conforme a lo dispuesto en el artículo 174.3 del vigente Reglamento de la Cámara, podrán presentar dentro de los siete días hábiles siguientes al de esta publicación las enmiendas que consideren pertinentes, mediante escrito motivado y dirigido a la Mesa.

**La presidenta del Parlamento Vasco**
**Bakartxo Tejeria Otermin**

A la Mesa del Parlamento Vasco

Txarli Prieto, parlamentario del grupo Socialistas Vascos, al amparo del vigente Reglamento de la Cámara tiene el honor de presentar la siguiente proposición no de ley para su debate en pleno, en relación con la adopción de medidas a adoptar para que la reducción de los precios del petróleo afecte, con la inmediatez y en proporción similar, al precio de las gasolinas que se paga finalmente por los consumidores.

Justificación

En los últimos meses la compra del petróleo se está abaratando internacionalmente. Esta oscilación de precios a la baja no se refleja con claridad en los establecimientos de venta de gasolina, donde la tendencia ha sido la de mantener los precios. Razonablemente con lo que está ocurriendo, los precios de las gasolinas debieran reducirse para los consumidores.

A tal fin, se propone la siguiente proposición no de ley para su debate en pleno.

1. El Parlamento Vasco insta al Gobierno de España a que adopte las medidas necesarias para que la reducción de los precios del petróleo afecte, con la inmediatez y en proporción similar, al precio de las gasolinas que se paga finalmente por los consumidores.

2. El Parlamento Vasco insta al Gobierno de España a adoptar los necesarios cambios estructurales de carácter regulatorio para, entre otros:

   - Resolver el problema de los elevados precios y márgenes en el sector de car-

***Petrolioaren prezioen jaitsierak azkenean kontsumitzaileek ordaintzen duten gasolinen prezioan berehala eta proportzio berdintsuan eragin dezan neurriak hartzeari buruz*** (Tramitatzeko onartzea)
(10/11.02.01.0642)

Mahaiak, 2014ko urriaren 28ko bileran, erabaki du tramitatzeko onartzea, osoko bilkuran eztabaidatzeko, Euskal Sozialistak legebiltzar-taldeak egindako LEGEZ BESTEKO PROPOSAMENA, eta agindu du Eusko Jaurlaritzari bidal dakiola eta Eusko Legebiltzarraren Aldizkari Ofizialean argitara dadila.

Legebiltzar-taldeek, Legebiltzarrean indarrean dagoen Erregelamenduko 174.3 artikuluan adierazitakoari jarraituz, zuzenketak aurkeztu ahal izango dituzte, argitalpen hau egin eta hurrengo zazpi egun baliodunen barruan, Mahaiari idazki arrazoitua bidaliz.

**Eusko Legebiltzarreko lehendakaria**
**Bakartxo Tejeria Otermin**

Eusko Legebiltzarreko Mahaiari

Txarli Prieto Euskal Sozialistak taldeko legebiltzarkideak, Ganberan indarrean den Erregelamenduaren babesean, legez besteko proposamen hau aurkezten du, osoko bilkuran eztabaidatzeko, petrolioaren prezioen jaitsierak azkenean kontsumitzaileek ordaintzen duten gasolinen prezioan berehala eta proportzio berdintsuan eragin dezan neurriak hartzeari buruz.

Arrazoiak

Azken hilabeteetan petrolioaren erosketa merketzen ari da nazioartean. Prezioen beheranzko oszilazio hori ez da argi islatzen gasolina saltzen duten establezimenduetan, hor joera prezioei eustekoa izan baita. Arrazoizkoa denez, gertatzen ari dena kontuan izanik, gasolinaren prezioak apaldu egin beharko lirateke kontsumitzaileentzat.

Horretarako, honako legez besteko proposamen hau aurkezten dugu, osoko bilkuran eztabaidatzeko.

1. Eusko Legebiltzarrak Espainiako Estatuari eskatzen dio har ditzala beharrezko neurriak petrolioaren prezioen jaitsierak eragin dezan, berehala eta proportzio berdintsuan, kontsumitzaileek azkenean ordaintzen duten gasolinen prezioan.

2. Eusko Legebiltzarrak Espainiako Estatuari eskatzen dio har ditzala araugarrizko beharrezko aldaketa estrukturalak ondorengoetarako, besteak beste:

   - Espainiako erregaien sektorearen prezio eta marjina altuen arazoa konpontzea,

burantes en España, introduciendo los necesarios cambios para que los grandes operadores no puedan seguir utilizando su poder de mercado en detrimento de la competencia efectiva. Es requisito indispensable la introducción de mayor competencia efectiva.

- Adoptar, en relación con el segmento minorista, las medidas necesarias para limitar las recomendaciones de precios de venta al público y los incentivos a la coordinación entre empresas, con el objeto de evitar la confluencia de intereses comerciales entre operadores, debilitar las posibilidades de alineamiento de estrategias comerciales entre ellos, y de fomentar la competencia entre estaciones de servicio abanderadas por un mismo operador y no gestionadas por él.

3. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a adoptar medidas encaminadas a incrementar la transparencia en el sector con el fin de reducir los costes de búsqueda y mejorar la capacidad de los consumidores de comparar entre estaciones de servicio, y, de esta forma, estimular la competencia entre las mismas. En este sentido, y en virtud del artículo 4.b) de la Ley 9/2007, de 29 de junio, de creación de Kontsumobide-Instituto Vasco de Consumo, Kontsumobide elaborará y publicará en su página web rankings de las estaciones de servicio más baratas en la última semana, el último mes o el último año, en entornos locales, con el objetivo de fijar los instrumentos y los procedimientos que permitan a las personas consumidoras y usuarias elegir mejor los productos y servicios más adecuados a sus necesidades y exigencias.

4. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a que, a través de Konstumobide, elabore un estudio en relación con la protección de los intereses de los consumidores respecto al no reflejo de aquellas rebajas en el precio final pagado por los consumidores. Dicho informe se presentará ante esta Cámara, en el plazo de 1 mes desde la aprobación de esta iniciativa.

5. Esta proposición no de ley será remitida al Gobierno de España y a las Cortes Generales.

En Vitoria-Gasteiz, a 23 de octubre de 2014

**Txarli Prieto San Vicente, parlamentario del grupo Socialistas Vascos. José Antonio Pastor Garrido, portavoz**

***

beharrezko aldaketak sartuz operadore handiek ez dezaten erabiltzen jarraitzerik izan beren merkatu-boterea benetako lehiakortasunaren kaltez. Ezinbesteko baldintza da benetako lehiakortasun handiagoa sartzea.

- Beharrezko neurriak hartzea, txikizkako segmentuari dagokionez, jendearentzako prezioen gomendioak eta enpresen arteko koordinazioarentzako pizgailuak mugatzeko; hala, operadoreen arteko interes komertzialen bateratzea eragozteko, haien arteko estrategia komertzialak lerrokatzeko aukerak ahultzeko, eta operadore berak abanderatu baino hark kudeatu gabeko gasolina-zerbitzuguneen arteko lehiakortasuna sustatzeko.

3. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio har ditzala sektoreko gardentasuna handitzeko neurriak, bilaketa-kostuak jaisteko eta kontsumitzaileek gasolina-zerbitzuguneen artean konparatzeko gaitasun hobea izateko, eta, era horretara, gasolina-zerbitzuguneen arteko lehiakortasuna akuilatzeko. Zentzu horretan, eta Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutua sortzeko ekainaren 29ko 9/2007 Legearen 4.b) artikuluaren ondorioz, Kontsumobidek prestatu eta argitaratu egingo ditu bere web-orrian azken asteko, azken hilabeteko edo azken urteko gasolina-zerbitzugune merkeenen rankingak, tokiko inguruneetan, kontsumitzaile eta erabiltzaileek beren behar eta exijentziei gehien egokitzen zaizkien produktuak eta zerbitzuak hobeto aukeratzeko modua emango dieten tresnak eta prozedurak finkatzeko xedearekin.

4. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio ezen, Kontsumobideren bitartez, egin dezala azterlan bat kontsumitzaileen interesak babestearen inguruan, harako beherapenek kontsumitzaileek ordaintzen duten azken prezioan islarik ez izateari buruz. Txosten hori Ganbera honen aurrean aurkeztuko da, ekimen hau onesten denetik hilabeteko epean.

5. Legez besteko proposamen hau Espainiako Gobernuari eta Gorte Nagusiei bidaliko zaie.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko urriaren 23a

**Txarli Prieto San Vicente, Euskal Sozialistak taldeko legebiltzarkidea. José Antonio Pastor Garrido, bozeramailea**

***

***Petrolioaren prezioen jaitsierak azkenean kontsumitzaileek ordaintzen duten gasolinen prezioan berehala eta proportzio berdintsuan eragin dezan neurriak hartzeari buruz*** (Zuzenketa)
(10/11.02.01.0642)

Mahaiak, 2014ko azaroaren 17ko bileran, erabaki du tramitatzeko onartzea Euskal Sozialistak legebiltzar-taldearen legez besteko proposamenari aurkeztutako ondoko zuzenketa, eta agindu du Eusko Legebiltzarraren Aldizkari Ofizialean argitara dadila.

**Eusko Legebiltzarreko lehendakaria**
**Bakartxo Tejeria Otermin**

**EUZKO ABERTZALEAK LEGEBILTZAR TALDEA**

**OSOKO ZUZENKETA**

"Eusko Legebiltzarrak Espainiako Merkatu eta Lehia Batzordeari eta Lehiaren Euskal Agintaritzari eskatzen die erregaien sektorearen eta gasolindegietarako banaketa minoristaren jarraipen sakona egin dezatela, petrolioaren kostuaren jaitsieren eta igoeren aurrean prezioen aldaketak aztertze aldera eta merkatua gardenagoa izatea lortze aldera".

***

***En relación con la adopción de medidas para que la reducción de los precios del petróleo afecte, con la inmediatez y en proporción similar, al precio de las gasolinas que se paga finalmente por los consumidores*** (Enmienda)
(10/11.02.01.0642)

La Mesa, en su reunión del día 17 de noviembre de 2014, acuerda admitir a trámite la siguiente enmienda presentada a la proposición no de ley formulada por el grupo parlamentario Socialistas Vascos, y ordena su publicación en el Boletín Oficial del Parlamento Vasco.

**La presidenta del Parlamento Vasco**
**Bakartxo Tejeria Otermin**

**GRUPO PARLAMENTARIO NACIONALISTAS VASCOS**

**ENMIENDA DE TOTALIDAD**

"El Parlamento Vasco insta a la Comisión Nacional de los Mercados y la Competencia, así como a la Autoridad Vasca de la Competencia, a que realicen un exhaustivo seguimiento del sector de carburantes y su distribución minorista en gasolineras, al efecto de analizar los deslizamientos de precios ante las bajadas y subidas del costo del petróleo y lograr que sea un mercado más transparente".

***

**3. gaia. Euskal Legebiltzar Talde Popularrak egindako legez besteko proposamena, diru-sarrerak bermatzeko errentaren bidez pentsioen osagarriak aldatzeari buruz. Eztabaida eta behin betiko ebazpena. [10\11\02\01\0667]**

\- - - - - -

. Legez besteko proposamena aurkeztea: 2014-12-01

. Aurkeztutako zuzenketak:
- SV-ES (1 osokoa)
- Mistoa-UPyD (1 osokoa)

\- - - - - -

Osoko bilkurako tramitazioa (Erregelamenduko 175. artikulua):

1. Talde proposatzailearen hitzaldia (15 minutu)
2. Zuzenketak egin dituzten taldeen txanda (10 minutu)
3. Zuzenketarik egin ez duten taldeen txanda (10 minutu)
4. Erantzuteko txanda (5 minutu)
5. Bozketa

**Asunto 3. Debate y resolución definitiva de la proposición no de ley formulada por el grupo parlamentario Popular Vasco, para la modificación de los complementos de pensiones a través de la RGI. [10\11\02\01\0667]**

\- - - - - -

. Presentación de la proposición no de ley: 01.12.2014

. Enmiendas presentadas:
- SV-ES (1 totalidad)
- Mixto-UPyD (1 totalidad)

\- - - - - -

Tramitación en el pleno (artículo 175 del Reglamento):

1. Intervención del grupo proponente (15 minutos)
2. Turno de grupos enmendantes (10 minutos)
3. Turno de grupos no enmendantes (10 minutos)
4. Turno de réplica (5 minutos)
5. Votación

***Para la modificación de los complementos de pensiones a través de la RGI*** (Admisión a trámite) (10/11.02.01.0667)

